



BARREN
TORIKOM



Lehen mailara salto

federópticos
Ikus

audiocentro
Ikus

Honako sintoma
hauetakoren
bat daukazu?

- Buruko mina
- Ikusmen-nekea
- Begietako azkura
- Begi-keinua
- Hatzamarrarekin irakurtzea

Bi begien azferketa
eginez, antzeman
dezakegu edozein
ikusmen-difuntzio,
eta tratamendua
eman diezazukegu.



Jose Artetxe, 10
Tel. 943 15 75 74 - AZPEITIA

Zigordia kalea, 7
Tel.: 943 133 151 - ZARAUTZ

San Bartolome kalea, 10
Tel.: 943 743 734 - **ELGOIBAR**

Ferpi
moda

San Bartolome 38,
Elgoibar
Tel.: 943 740 815



**Aukera zabala
estilo ezberdinetan!**
Laster jaunartzerik baduzu zator.
Goitik behera jantziko zaitugu.



INGELESA

ENJOY
SUMMER

eskulanak jofasak
irteerak Kirola
aire zabaleko jarduerak

www.ils.es
ILS - ELGOIBAR Gipuzkoa
E-mail: ils@ils.es
T. 943 744 040
www.ils.es



INGELESEKO

**Udalekuak
Elgoibarren**

Ekainaren 27tik uztailaren 29ra.

Goizez, 10:00etatik 13:00etara,
astelehenetik ostiralera.

ADINA

2011-2004 urte artean
(biak bame) jaiotakoak.

TALDEAK

8-12 lagun talde bakoitzean.

PREZIOA

3 aste : 185 €
4 aste : 245 €
5 aste : 295 €

ZAINZA ZERBITZUA

9:00etatik 10:00etara
(20 euro asteko),
8 ikasle gubianez.

IZEN EMATEKO EPEA

Apirilaren 11tik maiatzaren 26era arte.

ENJOY SUMMER

Irailaren 1etik 8ra

10:00etatik 13:00etara (105€)



RAFA FURNIER



“2035. urtea. Mundua ez da hainbeste aldatu. Bueno, agian bai...”

Gure zauriek irekita jarraitzen zuten nahiz eta 2035. urtea izan, eta gure belarriak ile zuriz es-taliak egon denboraren poderioz, zahartzarora gerturatzen garen seinale. Mundua ez da hainbeste aldatu. Bueno, agian bai. Galiziak eta Kataluniak independentzia lortu dute, eta Bilbo penintsulako hiriburua da orain; PNVk eta Podemosk penintsula osoko abiadura handiko trenen eraikuntza guztiak elkarren artean banatzen dituzte... eta Kataluniako errefuxiatu mordoak gure lurraldea inbaditzen du; Frantziarekin gerratean daude Pirinioko ura eta muga direla eta.

Gauzak horrela, eta zuk oraindik meloi-ondoaren ametsarekin jarraitzen duzula ikusiz, nire mendekua gauzatzea pentsatzen dut, zure ilusioz beteriko ondare guztiari amaiera emateko. Goiz hotz eta argi batean meloiak banan-banan ezandarazten ditut, orain dela urte batzuk zu besarkatzen zintudan indar berberaz. Meloi-ondoa hil da!; Panchok “Chanquete hil da!” esan eta hunkitu gintuen ahots tonu berarekin garrasi egin nuen; eta egoera bortitz honen erdian zure onetik aterata agertzen zara, emakume baten

eskutik... inozo halakoa! Orain emakumeak gustuko dituzu... eta lehen ezin zenituen ikusi.

Nik dakidanez, lehenengo aldia da emakume batek meloi-ondoa zapaltzen duena, hori izan baitzen amodioz beteriko gure akordioetako bat: “Gure espazio hau ez zuen emakumerik zapalduko, gizonetzako da soil-soilik, emakumeek badute euren tokia”. Gure mundua emakumeak zeharkatu ezin duen beirazko sabai batez inguratua dago... eta tratua urratzen duzu, harrotasunez eta boterez egindakoa, bi gizonetzako elkartu eta nahi dituzten lege ikusezinak onartzeko duten boterez egindako tratua.

Emozioz beteriko karga guzti honekin eta zu izorratzeko asmoz, badakit zer egingo dudan egokitzen zaidan meloi-ondoaren zatiarekin (biona baita oraindik). Kataluniar errefuxiatuen kanpaldi bat egingo dut eta horrela denek miretsiko naute, eta nire poroei onberatasuna dariela pentsatuko dute... eta zu, emakume baten eskutik, gizon biguin bihurtu zara.

Eta Jabi, txarrena da mundua ez dela aldatu.



JAVI MUÑOZ

“2035ean, generoa likidoa dela ahaztu duzu, non utzi dituzu Baumanen irakurketak? Ez zinen aliantza misoginora afiliatuko?”

Rafa, gogoratzen al duzu *Feministok Prest*, Gasteizen ospatu zen indarkeria matxistaren aurkako manifa hura? Egun, 2035ean, institutueta bost sexuak aztertze erabiltzen den manifa?, bai, 2016ko apirilaren 9an ospatutakoa? Hantxe ezagutu nuen Simone.

Simone ez da emakume bat, zuk emakumetzat ulertzen duzuna ez behintzat. Iraganean ainguraturata jarraitzen duzula nabaria da, maskulinitate hegemonikoaren ereduaren mundu hartan, eroso sentiarazten ez gintuen arren, hainbeste sari, errekonpentsa, zituen; hura zalantzan jartzeak ez zigun merezi. Inoiz ez genuen halakorik egin.


Bistan da, oraindik ez duzula bost sexuei buruzko 4/2032 legea onartu; egun, 2035an, generoa likidoa dela ahaztu duzu, non utzi dituzu Baumanen irakurketak? Ez zinen Aliantza Misogi-

nora afiliatuko, ezta? Zentru-ezker-eskuineko gizonen osatutako hortara? Beraien seme-alaben zaintza partekatua aldarrikatzen duten (baina adineko senideak ahaztuta uzten dituzten) gizonen gainezka dagoen aliantza hortara? Kataluniako Errepublika Feminista independentearen deklarazioaren ondotik sortu zena.

Simonek bizitza aldatu zidan gauza bat erakutsi zidan, iraultza handia ez dela lortzen arauak ez betetzearekin, beti gustatu izan zaigu hori, gizon eta emakumeok garai guztietan eginiko gauza da gainera, arau horiek zalantzan jartzearekin baizik.

Meloi-ondoa, ja!, nire *lerdel glassei* esker, milioi bat hektarea meloi-sail birtual lantzen ditut urtero. Beraz, bost axola.

Irakurle maitea, zein gutxi dakigun maitasunaz, berau amaitzen denean, laguntasunaz berau amaitzen denean, baina hala eta guztiz ere, bertan daude. Zer deritzozu?



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
 Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozaak Beleari eta eskutitzak talaletan adierazitako enantzikuzunak. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorluze. **INPRIMATEGIA** Gerutu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

ARGITARATZAILEA:

LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
 Iratza

Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ KALEA KONPARTITZEA

BARRENez 986. alean zetorren gutunari erantzuna da hau.

Asteburuetan Maalako zubian trafikoa moztu delako bizitza kalitatea hobetu dela dio gutun horretako idazleak eta askotan pasatzen den moduan kontrako iritzirik azaltzen ez bada, denok iritzi berekoak garelako pentsatu dezakete batzuek ("argitaratzen ez den iritzia ez da existitzen").

Ba, niri ez zait egokia iruditzen neurri hori. Ez diot justifikaziorik ikusten. Onartzen det momentu puntaletan nahiko trafikoa egon daitekela Maalako bidegurutzetan baina hori oso momentu puntaletan eta kalea konpartitzea ez dut gaizki ikusten.

Eta gai honetan Gabriel Kurutzelaegi kaleko biztanleen iritzia ere entzun beharko litzateke. Ustezko arazo bat konpontzeko, beste bat sortu degu.

Kalea konpartitzeko da; ez dauka jaiberik!

I.A.S.

▶ INFORMATZEKO ESKUBIDEA

BARRENezko erredakzioak elkartasuna helarazi nahi die Axier Lopez kazetariari eta berak lan egiten duen Argia astekariari. Axier Lopezi, Mozal Legea baliatuta, 601 euroko isuna jarri diote Naroa Ariznabarreta eibartarraren atxilotaren uneko irudiak "baimenik gabe" zabaltzeagatik.

Gizarteak informatuta egoteko eskubide osoa du, eta komunikabideek behar horri erantzuna emateko lan egiten dugu. Gizarte osasuntsu batean, onartezina da lan hori kriminalizatea. Horregatik, adierazpen askatasuna eta informatzeko eskubidea urratzen dituen edozein arau eta erabaki bertan behera gelditzea exijitzen dugu.

BARREN

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENez edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxak...
6. Ez dugu gaztekeraz datoren eskutitz argitaratuko.

I. URTEURRENA

Rosendo Fernandez-Campinun Buxeda

2015eko apirilaren 1ean hil zen, 84 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilak 9, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde aurretik eskerrak.



Eduardo Hernandez Delso

2016ko martxoaren 26an hil zen, 70 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Lekueder parkeko berdeguneak berritzen hasi dira



Lekueder parkeko berdeguneei itxura berria emateko lanak aste honetan hasi dira. Zuhaitz gehienak mantenduko diutze. Udaleko arduradunen arabera, “ahul dauden zuhaitzak kenduko ditugu zuhaitz osasuntsuenak indarberritu daitezen, eta, batez ere, berdeguneetako lurra berritu eta landare mota berriak landatuko ditugu”. Loredun landareekin osatuko dute lorategia (kamelia, hortentsia, agapanthusa eta antzerako landarak).

“Plazaren erabilerak gaur egun bezala jarraituko du, baina, kolore eta usain berriekin”, esan dute Udal arduradunek. Lorezaintza, baratzezaintza eta paisajismo lanetan aritzen den Kimu Bat enpresa ari da berdeguneak berritzen. Eguraldiak laguntzen badu, apirilean bukatu nahi dituzte lanak. Obraren aurrekontua 20.000 eurokoa da.

Gizarte zerbitzuei buruzko hitzaldia eta oroimen tailerra antolatu ditu Udalak

EAEko gizarte zerbitzuen inguruko hitzaldia eskainiko du EDE Fundazioko Jaime Garcia Morenok apirilaren 13an, Kultur Etxean, 19:00etan. Hitzaldia Elgoibarko Udaleko Gizarte Ongizate Sailak antolatu du. Horrez gain, hiru oroimen-tailer jarri ditu abian adineko pertsonentzat Jubilatuen Biltokian. Hala ere, eskabide gehiago izanez gero, beste talde bat antolatzeko aukera izango dela iragarri du Departamentuak.

Mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileentzako prestakuntza saioetan edota oroimen-tailerretan izena emateko Gizarte Ongizate Sailera deitu beharra dago (943 741 008, Amagoia).

Udaleko Gizarte Ongizate Sailak hainbat ekintza jarri zituen abian martxoan, herritarrei hainbat gai garrantzitsuri buruzko informazioa eta prestakuntza eskaintzeko. Orain arte izandako harrera ikusirik, ekimenek jarraipena izango dute.

Alemaniatik etorritako talde antifaxisten bisita jaso du Elgoibar 1936 taldeak

Alemaniatik etorritako talde antifaxista baten bisita jaso zuen Elgoibar 1936 taldeak aurreko asteburuan. Memoria Historikoa berreskuratzeko egiten ari den lana bertatik bertara ezagutarazi zien elgoibarko taldeak alemaniarrei, bisita gidatu batean.

Etorritakoak Turingia estatuko sindikalistak eta Die Linke alderdiko kideak ziren nagusiki. Euskal Herrian Memoria Historikoa berreskuratzeko egiten ari diren lana ezagutzera etorri ziren.

Elgoibar 1936 taldeak tour memorialista bat antolatu zion taldeari. Erich Andres argazkilari naziak Francoren tropak Elgoibarren sartu zirenean ateratako argazkiak erakutsi zizkien. Besteak beste, tropek hartutako Kalegoen plaza, lubakien kokalekua, Celestino Onaindia apaizaren laguntzailearen hilketa eta udaletxean jarri zituzten kalabozaok non egon ziren azaldu zieten. 1939an, tiroz hildako Emilio Etxarri Ornosagastiren kasua ere azaldu zieten. Pedro Mugurutza etorbidean amaitu zuten ibilbidea, Erorien Arana, Frankismoaren eraikuntzarik enblematikoena egin zuen arkitekto elgoibartarraren izena daraman ibilbidean.

Handik, Zirardamendira joan ziren elgoibartarrak eta alemaniarrek, gudariak desobiratu zituzten lekura.



Mendaroko herritar batzuek euskara praktikatzeko ekimena abiatu dute



Euskaraz berba egiteko orduan erraztasun handiagoa lortu nahi duten herritar batzuk euskara ondo menderatzen duten beste batzuekin elkartu eta tertulia edo berbalagun erako talde bat jarri dute martxan, Mendaron. Eguazteneko euskaldun zahar eta berriz osatutako talde bat biltzen da Puxika dendaren atzealdean, euskarazko mintza praktikak egiteko. Orain dela hilabete inguru hasi ziren ziren elkartzen.

Puxika dendako Itziar Gurbindoren arabera, jende askok euskara jakin arren, gero kalean ez dute egiten. Bera Iruñekoa da, eta hitz egiterakoan euskaraz erraztasun handiagoa lortzearen, Elgoibarko Tertuliak programan parte hartzeko tentazioa izan zuen. Baina taldea Mendaron sortzeari intesgarriagoa iritzi zion.

Euskaldun berriei eta euskara ondo menderatzen dutenei dei egin diete tertulietan parte hartzek. "Hitz egiteko lotsa da oztoporik handiena. Hanka sartuz gero denok hitz egin ahal izango dugu", adierazi du Gurbindok.

Intxaustiko langileek eta zuzendaritzak akordioa lortu dute

Martxoaren 16an hasitako greba mugagabea martitzenean amaitu zen Tratamientos Intxausti enpresan, langileek eta enpresak datozen hiru urteetarako aurre-akordioa adostu ondoren. Soldata igoera adostu dute (KPIa gehi %1,5 aurten eta KPIa gehi %1 hurrengo bi urteetan), eta aldi baterako ezintasun guztietan, %100eko osagarria izatea ere lortu dute, eta baita lan osasunean hobekuntzak egiteko konpromisoa ere. LAB sindikatuak nabarmendu du hobekuntza guztiak lan erreformatik babesturiko eta Gipuzkoako metalgintzako hitzarmenari loturiko Enpresa Hitzarmen baten bitartez egingo direla. Zuzendaritzaren arabera, "kanpoko laguntzaik gabe" parte hartu dute.

Eñaut Izagirreraren espedizioak amaitu du Patagoniako glaziarretako esplorazioa

Eñaut Izagirre elgoibartarrak eta Incognita Patagonia espedizioiko gainerako kideek amaitu dituzte inork zapaldu gabeko eremuetan egin asmo zituzten lan eta esplorazio gehienak, eta dagoeneko hasi dute etxerako bidea. Txileko Patagoniako Hoste harte ezezagunean egin dituzten esplorazio eta mugimenduen zertzelada batzuk eman ditu Izagirrek sarean.

"Espedizioaren zati handi bat egin! Hasi dugu Darwin mendikatetik barrena eramango gaituen itzulerako bidea", azaldu du Eñaut Izagirrek Patagoniatik. Martxoaren 2tik aurrera egin dituzten mugimenduen berri ematen ari da Izagirre, audio mezu, mapa eta argazkien bidez, fuga.expenews.com webgunean.



Suhiltzaileen martxa eguazten arratsaldean bizikletaz pasatuko da Elgoibartik

Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko suhiltzaileek bizikleta martxa bat antolatu dute hilaren 12tik 15era bitartean, Jaurlaritzak onartu nahi duen lege proiektu baten aurka protestatzeko. Suhiltzaileen arabera, lege hori onartuz gero, zerbitzuak prekarizatuko dira eta suhiltzaileen etxeak gauz ixteari ateak irekiko zaizkio.

Martxak abiapuntu ezberdinak izango ditu. Bizkaitik eta Gipuzkoatik abiatutakoak Arrasaten bat egin ondoren, Araban sartuko dira. Elgoibartik bizikletaz pasatuko dira, apirilaren 13an, 16:30 aldera (Zumaiaetik Eibarrera arteko etapa). Hilaren 15ean Gasteizko Legebiltzarrean amaituko da suhiltzaileen protestaldia.

Sigmako enpresaburu Angel Berazadi Urbe ETA Politiko Militarrek bahitu eta hil zuela 40 urte bete dira

Orain dela 40 urte izan zen arren, elgoibartar askoren memorian dagoen gertakari baten urteurrena da gaur, apirilak 8: Angel Berazadi Sigmako enpresaburuaren hilketa. Mari Carmen Estartarekin ezkondua zegoen Angel Berazadi, Estarta y Ecnarro enpresako fundatzaile Eulogio Estartaren alaba bakarrarekin. Elgoibarren lan egin arren, Donostian bizi ziren beren sei seme alabekin. Abertzalea (EAJ) alderdiaren jarraitzailea) eta hainbat ikastolaren bultzatzailea.

1976ko martxoaren 18an lantegitik irten eta autoan Donostiara bidean abiatu ondoren, bahitu zuen Sigmako enpresaburu Angel Berazadi ETA Politiko Militarreko komando batek. Orduko 200 milioi pezeta eskatu zizkion bere familiari Berazadiren askatasunaren truke. Ez zuten aske utzi, ordea, gaurko egun batez, orain dela 40 urte Elgoibar eta Azkarate arteko bide bazter batean aurkitu zuten goizaldean bere gorpua buruan (garondoan) tiro bat zuela.

Hileta jendetsua

Elgoibartar askorentzat oso gogorra izan zen hilketa hura. Hilik agertu zela jakin zutenean Sigma lantegia gelditu eta han bertan jarri zuten hilkapera. Arratsaldean handik eraman zuten bizkar gainean hilkutxa San Bartolome parrokiara. Kalegoen plaza lepo bete zuten milaka lagunek –10.000tik gora– agurtu zuten Berazadi, eta gehienek kanpoan jarritako bozgorailuetatik jarraitu zuten isiltasunean meza.

Egun batzuk lehenago bere jaioterrian, Zarautzen, ere manifestazio jendetsua egin zuten haren askatasuna eskatuz. *Aingeru bizirik behar dugu* lelopean eraman zuten pankarta senideek. Hileta egunean ere Sigma lantegi aurrerko aldean jende asko elkartu zen –lan-



Pistola Angel Berazadiren bururantz zuzenduta bahituta izan zuten zuloan.

gileak eta inguruko enpresariak batez ere– eta han ere pankarta bat jarri zuten: *Aingeru, agur jauna.*

“1970etik ETak bahitutakoen artean Angel Berazadi enpresaria izan zen hil zuten lehenengoa”

Angel Berazadiren bahiketa eta hilketa Franco hil eta handik hilabete gutxira gertatu zen, trantsizio bete betean gertakari politikoak, ikaratzekoak asko, egunerokoak ziren sasoiaren. Hori adierazten du, esaterako, Berazadi hil baino hiru egun lehenago ETA Politiko Militarreko 20tik gora presok Segobiako kartzelatik egun zuten ihesaldi sonatuak.

1970etik ETak bahitutakoen artean lehena izan zen Angel Berazadi, orduarteko gainontzekoak aske utzi bahituta eduki ondoren baitzituzten. Bahituen artean lehena izan zen Jose Angel Agirre Elgoibarko Banco Guipuzcoanoko zuzendaria.

Donostiako Polizia kontrol batean hiru pertsona atxilotu zituzten egun batzuk geroago eta haiei leporatu zieten Angel Berazadiren bahiketa eta hilketa.

Aberri Eguna

ETA Politiko Militarren hilketak Aberri Egunaren ospakizunean eman zuten zeresanik. 1976an, Frankismo osteko lehen Aberri Egunean, ibilaldi bateratua egitekotan ziren alderdi guztiak –PSOE, EAJ, IRI, EKA eta ezker abertzaleko hainbat alderdi–. Baina Berazadiren hilketa zela medio EAJk, PSOEk eta erbesteko Euskadiko Gobernuak babesa kendu zioten Iruñeko zitari.

Ibili, hitz egin, entzun



Beste norbaitekin batera paseatu nahi duen edozeini 84 egunean munduari buelta emateko aukera eskaini diote Patxi Galarraga eta Miren Vives arkitekto mendaroarren, beti ere Donostiatik irten gabe. Binaka edo taldeka paseatzeko proiektu hori aste honetatik hasita praktikatu daiteke, ekainaren 29ra arte. Lagunekin edo ezezagunekin paseatzeak dakartzan onurak balioan jarri nahi dituzte modu honetan: kulturartekotasuna sustatu daiteke, besteekin egon, besteengandik ikasi, nor bere esperientziak kontatu... kirola egiten den bitartean. Azken batean, mundu guztian egiten den praktika osasuntsu eta integratzailea aldarrikatu nahi dute ekimen honen bidez. Ziurteza beste modu batean ulertu eta eraiki beharra nabarmentzen dute, eta norabide horretan eman dituzte pauso batzuk. Ermuan, esate baterako, ibilbide osasungarri batzuk seinalizatu dituzte herritar guztiak ere erabil ditzaten, eta dagoeneko sendagileak zirkuitu horietan paseatzeko errezeta ematen die pazienteei.

- OIER NARBAIZA -

Apirilaren 6tik martxan dago Patxi Galarraga eta Miren Vives arkitekto mendaroarren Hiribiltzen proiektua Donostian. Hiribiltzen egitasmoak ibilaldi bat egiteko proposatzen die bai donostiarrei bai Donostiara hurbiltzen den edozein bisitariri. Kontxako badiatik eta Zurriolako hondartza ondotik paseatzeko plan simple eta,aldi berean, berritzailea abiatu dute.

Hiribiltzen egitasmoa ez da bakarrik paseatzeko pentsatu, taldean edo beste norbaitekin batera egiteko baizik. Jendeak, paseatzeaz batera, elkarren artean tartetxo bat partekatze

aukera izan dezan nahi du: elkarrekin komunikatzeko, ondokoa ezagutzeko, berba egiteko edo entzuteko ibilalditxoa izan nahi du, besteak beste.

Aste honetan martxan jarri den proiektuak Donostia 2016 ekimenean du abiapuntua: Fundazioaren *Energia-Olatuak* programaren Topaguneak deialdi berezi bat egin zuen eta ondoren herritarrez osatutako Ardora batzordeari gustatu eta aukeratu egin zuen. Donostiatik irten gabe, munduari 84 egunetan buelta emateko proposatu zuen Hiribiltzen.

Azken hilabeteetan proiektua lantzen jardun ondoren, mar-

txan jartzea lortu dute aste honetan. Egitasmoan erabiliko diren euskarri eta material guztiak Debabarrenean egindakoak dira (softwarea, hardwarea, errotulazioa, balizak, txartelak...).

Ilbiltzea eta pertsonak elkartzea, hori da ekimenaren asmo nagusia. Galarragak garbi du konpainian egindako ibilaldiek ongizate fisiko,

emozional eta soziala dakartela. Horregatik, era honetako milaka ibilaldi eta elkarrizketa jarri nahi dituzte martxan.

Ekimen hau eguaztenean jarri zuten martxan eta ekainaren 29ra arte parte hartu ahal izango da. Bitarte horretan, sei baliza egongo




dira ibilbidean: Tenisean (Haizearen Orraziaren ondoan), Kontxako Pasealekuan (tuneletik gertu), Nauticon, Paseo Berrian (Oteizaren eskultura ondoan), Zurriolako zubian eta Saguesen. Ibiltariak aukeratuko dute ibilbide guztia ala zatitxo bat egin.

IBILTARIAK ETA TXARTELAK

Ibiltari bakoitzak txartel bana izango du. Txartelak Donostiako Ijentea kafetegian eskuratu ahal izango dira, ([facebook.com/ijenteakafea](https://www.facebook.com/ijenteakafea)) eta ibiltariak txartelak balizara gerturatuko dituzte bere ibilaldia erregistratzeko. Hartara, ibiltari guztien kilometroak batu egingo dira, eta webguneko kontagailuan agertuko dira. Erronka ez da makala: 84 egunetan (2.016 ordu) 40.075 kilometro osatu nahi dituzte, luraren zirkunferentziak adina.

Erronka bera lortzea baino, garrantzitsuagoa da, antolatzaileen iritziz, era guztietako ehunka topaketa sortzea, ehunka paseo ezberdin gertatzea: jendea el-



kartu, eta paseatu dezala Donostiako itsasertzean.

Proposamena, berez, bikoteka edo taldeka paseatzeko planteatu dute. Baina zer gertatzen da plan hori egiteko lagunik ez dutenekin? Donostiako edo mundu zabaleko edonor ezagutu eta berarekin batera ibilbidea egiteko aukera ere eskaintzen du egitasmoak. Ordu pareetan (10:00, 12:00, 14:00, 16:00, 18:00 eta 20:00etan) Nautico ondoko balizan izango dira hitzorduak, nahi duenak nahi duenarekin gelditzeko. Munduari buelta ematean bezala, pertsona, egoera eta errealitate desberdinak bizi izateko aukera paregabea eskaini nahi du Hiribiltzenek, eta Donostiatik irten gabe.

AGENDA

Agenda bat osatzen ari dira *hiribiltzen.eu* webgunean. Zenbait topaketa prestatuko dituzte pertsonekin, elkarteekin eta abarrek. Edozein talde edo elkarteko partaideei ekimenarekin



kontaktuan jartzeko eskatu die, *donostia@hiribiltzen.eu* posta elektronikora idatzita. Horrez gain, eta ekimena gustatu zaienei antolakuntzarekin kontaktuan jartzeko aukera eman dute.

Nahi duenak, gainera, paseoaren inguruko bizipenak, sentazioak edo iritziak ahal izango ditu webgunean. Denen artean, horrela, errelatu kolektibo bat eraikiko dute.

Eguaztenean hasi ziren lehen ibiltariak munduari buelta ematen. Elkartu Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Federazioko kideak ibilaldian izan ziren. Atzegi elkarteko ibiltariak ere ibili ziren.

Kirol praktika barneratzailea

Herriek eta hiriek beste begirada batekin begiratzeko asmoz hasi ziren lanean Mendaroko Miren Vives eta Patxi Galarraga arkitektoak. Desabantaila egoeran isil-isilik dauden horiei harreta berezia jartzeko ahalegina egiten ari dira. Haien ustez, hiri-gintzak gehiago erreparatu behar die andrazkoei, umeei, desgaituei edo adinekoei.

Pertsona horiek ere fisikoki aktiboagoak izateko diseinatu behar dira hiriak, Patxi Galarragaren iritziz. "Elgoibarren, azkena egin dute kantxa bat. Sanlok behar batzuk dauzka. Badago gizarteko geruza bat behar hori sentitzen duena eta enpoderatuta dagoena behar hori Udalari eskatzeko. Udalaren kirol ikuspegiak eta kirol hori egiten dutenek sintonia bat badute. Goizetan paseatzera irteten den batek ordea, ez du sentitzen kirola egiten ari denik eta ez zaio bururatzen ibiltzeko garaian bere miseriak konpontzeko -adibidez bidea ez dagoela argizatuta, ez dagoela jarlekurik, ez dagoela iturririk, pixalarria sartzen bazaio gaizki egiten du bazter batean edo ez dauka komunik...-. Ez zaie bururatzen Udalari hori exijitzea besteak kantxa eskatu duten maila berean. Zergatik ez dute maila bera kirol jarduera batek eta besteak?", azaldu du Galarragak.

Adinekoak aktiboak izatea oso garrantzitsua dela

naibarmendu du. "Eibarren momentu honetan, biztanleen erdiak baino gehiagok 50 urte baino gehiago ditue. 75 urtetik gorakoak gehiago dira gazteak baino (16-29 urte). Badituzte bere kirol beharrak eta bere aspirazioak. Interesatzen da jende hori aktiboa izatea", uste du.

Jarduera fisikoaren inguruan zenbait proposamen egin dituzte. Ermuan, esaterako, seinalizatutako ibilbideak prestatu dituzte Udalarentzat, besteak beste, Kirol, Ongizate eta Berdintasun sailekin lankidetzan. Sendagileak zirkuituan paseatzeko errezeta ere prestatzen die pazienteei zenbait kasutan. Ermuko ibiltari asko nagusiak dira eta pultsera bat dute, seinaleetara gerturatzeko, datu batzuk erregistratzeko (denbora, ibilbidea...). Ibiltariak edo senideek deskargatu ditzakete gero, jarraipena egiteko.

Galarragaren iritziz, kirol teknikariek ere kontuan hartu beharko lituzkete pasealekuak. Dena den, argi du pasealeku horietan kirolaz gain "beste zerbaite" ere gertatzen da: "Beste batzuekin elkartzeko ere balio dute leku horiek, ongizate fisikoaz gain, ongizate emozional eta sozialerako lekuak ere bada. Kirol praktika oso barneratzailea da edozein kulturatan".

urriola
320 m
7 min

SAGUES

“Munduko txapelketa jokatzeko aukera izatea sekulakoa litzateke”

► NORA KORTABERRIA BILBAO

ESKUBALOI JOKALARIA

Sanlo eskubaloi taldean hasierako urratsak eman ondoren, iaz Zarauzko Aiala taldera egin zuen salto Nora Kortaberria Bilbao elgoibartarrak. Zarauzko taldera iristean bat seniorretan, emakumezkoen maila gorenera ere pasatu zen. Ligan azken tokian daude eta mailari eustea zaila izan arren, borrokatzen saiatuko dira. Zarauzko taldearekin ligan ez ezik Espainiako Selekzioarekin Polonian aritu da Munduko Txapelketarako txartela lortzeko lehian. Txartela eskuratuz selekzioak eta orain, eguneroko ikasketa eta eskubaloia uztartuz selekzionatzaileak berri deitzeko esperantza mantenduko du entrenamenduei gogoz eutsiz.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



◆ Nola hasi zinen eskubaloian?

Eskola kirolean eskubaloia, futbola eta saskibaloia txandakatzen genituen. Elgoibarren moda zegoen mutirik futbola eta neskak eskubaloiara joateko, eta, niri futbola ere gustatzen zitzaidan arren, eskubaloian jarraitu nuen lagun giroarengatik-edo. Euskal dantza eta balletan ere aritzen nintzen, baina 15-16 urterekin utzi nituen eta eskubaloiaz gain, eskola orduetatik kanpo hizkuntzak ikasteari garrantzia eman nion.

◆ Orain dela gutxira arte Sanlo Eskubaloi Elkartean ibili zara. Zer eman dizu Sanlok?

Erosotasuna, lagun eta familia giroa eta maila ona. Etxeko laurak ibili gara elkarrearen bueltan, ahizpa eta biok jokoan, aita delegatu eta ama ere elkarrearen inguruan, horrek eroso sentiarazi nau. Betiko jendea, laguntzeko prest dagoena, eguneroko lanetatik kanpo ahalegina egiten duena... Norberak jokatu nahi duen horretan aritzeko aukera ematen du, baina hainbesterako zorroztasunik gabe. Hala

ere, Elgoibarren maila ona egon izan da.

◆ Denboraldi honetan hasi zara Zarautzen. Aldaketa handia izan al da?

Elgoibarrek eta Zarautzek zilarrezko ohorezko mailan jokatzen genuen eta iaz lortu zuen Zarautzek igoera. Hango deia sorpresa izan zen niretzat. Unibertsitatean ere orduan hasi behar nuen eta ez nekien nola moldatuko nintzen. Hala ere, baietzkoa eman nuen. Entrenamendu eta partida erritmoa gogorragoa bada ere talde barruko aldaketa ez da sekulakoa izan. Zarautzen eta Elgoibarren arteko pike saroa beti egon izan da, baina, era berean, eskubaloian Zarautzen nituen lagunik gertu-

koenak eta adarra jo didate

◆ Maila aldaketa, ordea, nabarituriko zenuen, ezta?

Bai. Aurkarietan batik bat. Espainian ez dago beste herrialde batzuetan adinako mailarik, hala ere alde sumatzen da Espainiako aurkarietan ere. Batzuk profesionalak dira, eskubaloi bideratuta daukate euren bizimodua, eta guk egiten ditugun akatsak doble ordaintzen ditugu. Bestalde, guri eskatzen digun exijentzia ere handiagoa da, egunero entrenatu beharra, asteburuetan partidak...

◆ Orain azkenak zaudete sailkapenean, apirila eta maiatza falta zaizkizue. Nola

ikusten duzue liga?

Denok dakigu mailari eustea zaila daukagula. Orain arte beste taldeekin alderatuta ez geneukan beraien adinako profesionaltasunik, bai, ordea, borrokatzeko gogoia. Saiatu garen arren zorte txarra ere eduki dugu, partidak eskura izan eta galdu, ez gaude maila horretan jokatzeraz ohituta eta arbitroen laguntzarik ere ez dugu izan. Bi talde jaisten dira eta partidarik edo aurkaririk txarrenak pasatu ditugunez, gure helburua da gelditzen diren partidetan erakustea ahal dugula non gauden begiratu gabe.

♦ Jokoari dagokionez, maila horretan nola sentitu zara?

Aurkako taldearen arabera modu batera edo bestera jokatu behar da, baina era berean ez diot nire buruari pentsarazten zein talde dudan aurrean, batzuekin gehiago beldurtzen bainaz. Erdilaria naiz eta agindu behar izaten badut ere ez da erraza, askotan blokeatzen naiz, baina entrenatzaile eta taldekideek, beterranoek batik bat, asko laguntzen didate. Entrenatzaileak, gainera, denoi ematen dizkigu jokatzeo aukera eta minutu asko.

♦ Emakumeen eskubaloiak ba al du oihartzunik?

Beste taldeetan ere ikusten da, baina gurean nabarmenago. Lehen mailako taldea gara, beste kirol eta sexu batzuetan bezala egunero entrenatzen gara, baina erantzuna ez da bera, igaritzen da eskubaloia dela eta neskena. Komunikabideetan ere toki gutxi dugu eta horrek amorratzen gaitu.

Jarraitzaileak, ordea, asko daukagu Zarautzen, kiroldegia bete egiten da gure partidetan eta hori eskertzekoa da.

♦ Espainiako selekziorako ere aukeratu zaituzte. Nolako esperientzia izan da?

Nazioartean jokatzea sekulakoa izan da. Tenerifen egon ginen prestatzen, lagun arteko torneo batean eta ekipoak bat egiteko klabea izan zen, berri asko geunden-eta. Gero Poloniara joan ginen munduko txapelketarako txartela lortzeko eta partida denak irabazi genituen. Turkia eta Eslovakiaren aurka borroka eginez, baina nahiko erraz irabazi genuen. Polo-

nia talde gogorra zen eta etxean jokatzen zuen, baina gure gogoia aterata irabazi eta mundialerako txartela eskuratu genuen. Mundiala udan da eta joateko desiatzen nagoen arren, beste deialdi bat egin behar dute. Aurrez, nire postuan jokatzen zuten hainbat lesionatu egin dira eta haiek errekueratuz gero ez dakit haiek eramango dituen ala ez.

♦ Eta joateko aukera izanez gero?

Munduko txapelketa jokatzeo aukera izatea sekulakoa litzateke eta gozatzeraz ez zik ahalik eta ondoen egitera joango nintzateke, noski. Teknikoki ez dakit helburuak nolakoak izango liritekeen sekula ez baitut horrelakorik jokatu. Jokatu dutenek diote horrelakoetan zaila izaten dela emaitza onak lortzea maila altua dagoelako, baina sekula ez da jakiten. Polonian inork ez zuen gure alde apustu egin eta lortu genuen

♦ Nola bateratzen dituzu ikasketak eta eskubaloia?

Lehen urtea nuen Unibertsitatean eta baita eskubaloian maila honetan ere, beraz, beldurrez hasi nintzen, baina uste baino hobeto moldatzen naiz. Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntza gradua egiten ari naiz eta enpresen sorrera eta talde autogestionatuak kudeatzen ikasten dugu, beraz, aukera ematen dit moldatzeko, ni arduratu behar bainaz eguneroko egin-beharrak antolatzeaz.

Ikasketetan enpresa berri bat sortu

dugu teoria ikasi eta gero praktikak egin beharrean praktikatu ikasteko. Horren baitan elkarrengandik oso ezberdinak diren proiektuak egiten ditugu urte amaieran helburu batzuetara iristeko. Esan izan didate proiektuen bat bideratzeko eskubaloira, baina ez dut nahi, eskubaloia hor ere sartuko banu aspertuko nintzateke beharbada.

Ikasketek eskubaloiaaren hainbat gauza mugatzen dizkit eta alderantziz. Esaterako, ikasketengatik Finlandian bi hilabetez egon nintzen eta orduan ezin izan nuen eskubaloian jokatu; bueltan eskubaloian topera ibili naiz, ikasketen erritmoa pixka bat jaitsiz, beraz, orekatzea da kontua. Orain topera ari naiz, egun erdi ikasketak eta egun erdi eskubaloia, baina oso gustuko ditudan bi gauza dira, beraz, aurrera.

♦ Zure eskubaloiko etorkizuna talde handiago batean jokatzen ikusten duzu?

Aukerak beti daude, baina orain zaila ikusten dut. Deituz gero pentsatu egin behar nuke Unibertsitatearekin edo aurrerako lanarekin bateratzeko ere. Ametsezkoa litzateke talde handiago batek deitzekotan Bera-Bera izatea gertu dagoelako eta sekulakoa taldea delako, baina urruti ikusten dut aukera hori.

Dena dela, nire etorkizuna eskubaloian lotuta ikusten dut auskalo zer talde-tan, zein mailatan, baina ahal dudanera arte eskubaloian jarraituko dut.



Arg: Luis Epelde

Andoni Lubaki argazkilariak Siriako gerran ateratako argazkiekin erakusketa jarriko du Kultur Etxean



Gerran, armak esku artean dituztela, beren alde samurra ere azaltzen du jendeak, baita argazkiek ere. Arg.: Andoni Lubaki.

Andoni Lubaki: nazioarteko fotokazetaria eta ezkontza argazkilari urretxuarra. Bi esparru kontrajarri diruditen arren, argazkilari hau bietan aritzen da. Argazki-kazetaritza gainera, batik bat gatazkan dauden herrialdeetan egiten du. Azken alor hortako argazkiak jarriko ditu ikusgai, hain zuzen ere, Ongarrik antolatu duen erakusketa batean.

Munduko hainbat gatazka bizi izan ditu bertatik bertara (Sahara, Libia, Irak, Siria...) eta argazkietan islatu. Saharatik itzuli berri bada ere, oraingoan Siriako gerran ateratako argazkiak ikusteko aukera eskainiko du Elgoibarren *Aleppo, beldurraren frontea* erakusketan.

Gerraren beste ikuspegia

Aleppo hirian, Siriako gerra zibilaren alderik gordinena ezagutu duen tokian, bizi izan zen Andoni Lubaki eta hango egunerokotasuna harrapatu du bere argazki kamerarekin. Gerra eta gatazketako argazkiek erakusten diguten ikuspegi

dramatikotik pixka bat aldendu eta alde humanoagoa erakusten dute Lubakiren argazkiek. Esaterako, argazkietan, beren herria defendatzeko armekin ageri da jendea eta une berean futboleko baloi bat ostikoz jotzen edo katu bat laztantzen, eta kontraste hori da irudietan islatu duena. Chris Hondros nazioarteko fotokazetaritza saria jaso zuen Lubakik Sirian egindako lanarengatik.

Erakusketaren inaugurazioa datorren barixakuan, apirilaren 15ean izango da 20:00etan Kultur Etxeko erakusketa gelan eta autoreak hainbat azalpen emango ditu. Ondoren, astelehenetik zapatara egunero 18:30etik 20:30era bitartean egongo da irekita erakusketa apirilaren 30era arte.

Masterclassa

Bestalde, apirilaren 16 goizean Andoni Lubakik gatazka argazkilaritzari buruzko masterclass bat emango du 09:00etatik 14:00etara bitartean Kultur

Etxeko Hitzaldi gelan. Gatazka argazkigintza zer den, kanpoko herrialdeetara joateko bidaiek eta bisak, gatazka eta gudaren arteko bereizketa, argazkilariak nola lan egiten duen, zein material behar duen (teleobjektiboa, objektibo motza...), epe labur eta luzearako lana den, etika, argitaratzeko bide berriak eta ondorioak azalduko ditu. Besteak beste, gatazkek aurpegi asko dauzkalako, eta sufrimendu asko egon arren ez direlako beti hondamendia edo hildakoak atera behar.

Argazkilariei edo argazkigintzan interesa dutenei zuzendutakoa da masterclassa. Doakoa bada ere izena emateko edo informazioa jasotzeko 688 649 513 zenbakira deitu edo ongarri@outlook.com helbidera idatzi behar da.

Norbaitek bere argazkiak eraman nahi baditu eraman ahal izango ditu, baina ez da derrigorrezkoa Andoni Lubakik berak lan historiko nabarmenak erakutsiko dituelako errepaso bat eginez eta Ongarrikoek ere eramango dituztelako.

Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa jokatuko da asteburuan

Asteburuan, apirilaren 9an eta 10ean jokatuko da Elgoibarko XV. Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa Herriko Antzokian. 17 urte dira Elgoibarko dantzariak txapelketetan parte hartzeko prestatzen hasi zirela eta aurten ere Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako dantzari gazte eta finak ez ezik txapelketa hauetan aritzen diren Elgoibarko dantzariak ikusteko aukera izango da. 62 dantzari lehiatuko dira guztira.

Zapatuan, 16:00etan hasita, 7 eta 11 urte bitarteko 17 neska eta 15 mutil ikusi ahal izango dira dantzan taula gainean, tartean Irune Arriola, Aimar Almortza eta Markel Goenaga elgoibartarrak. Domekan, berriz, 11:00etan hasiko da saioa 11 eta 15 urte arteko 21 neska eta 9 mutilekin. Elgoibartik Maddi Zabala, Amaia Sasiain, Lorena Etxaniz, Naroa Lopez, Irati Marcos, Oihane Agirrebeña, Nerea Sasiain eta Gaizka Uranga.

Entseguak eta lehiaketak

Txapelketetan parte hartuz irakasleen helburua da Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako dantzariek teknika zorrotza lantzea, pixkanaka gehiago ikastea eta hainbat herritan bakar bakarrik dantzatzea. Horretarako, besteak beste, dantzariek, talde entseguetatik aparte ordu beteko prestakuntza saioak egiten dituzte astero. Elgoibarko dantzari guztiek dute aukera txapelketetako entseguetan parte hartzeko eta gero lehiatzeko.

Nerea Arriola biolin-jolea Euskadiko musikari gazteen lehiaketan irabazle



Euskadiko musikari gazteen X. lehiaketa jokatuko da orain dela gutxi Donostian eta Nerea Arriola biolin-jole mendaroarrak harizko musika tresnen sailean, 12 eta 15 urtekoen mailan, lehen saria eskuratu du iaz lortutako bigarrena gaintuz.

Esther Barandiaran piano-jolea lagun zuela bi pieza jo zituen Nerea Arriolak. Maila altuko lehiaketa da eta hori erakutsi zuen Mendaroko musikariak ere. Lehiaketa bera bukatu bada ere, irabazleek jarraituko dute ibilbidea, izan ere, eskola magistraletara entzule modura joan ahal izango dira eta Musikeneko Orkestako, Bandako zein Big Bandeko entseguetan hartuko dute parte. Nerea Arriolari ere dei egingo diote seguru asko.

Bestalde, maila bakoitzeko irabazleak, Nerea Arriola tartean, musika esperientzia jardunaldi batera joango dira. Modu eskusiboan Euskadiko Orkestra Sinfonikoko entseguak eta kontzertu bateko soinu-proba entzun eta ikusi zein musikariek hizketan egiteko aukera izango dute. azokan ere salgai egingo da.

Musika Eskolako instrumentu taldeak apirilaren 11n eta 15ean

Inazio Bereziartuako instrumentu taldeek –guztira 15– kontzertua eskainiko dute apirilaren 11n, 19:00etan, Musika Eskolako auditorioan. Klarineta, pianoa, biolin-txelo, txistua, saxofoia, oboea, akordeoia, marinba, biolina, tronpeta eta gitarra entzungo dira, baita dantza ikusi ere.

Apirilaren 15ean beste saio bat izango da eta horrek berrikuntza ekarriko du. Musika kalera eramateko asmoz, 19:30ean Lekuederretik abiatu eta txaranga lagun dela kalejira egingo dute. Kalejira horretan, ordea, hainbat geldialdi egingo dituzte Kalebarrenen, Kalegoenen eta Lekuederren bertan. Horietan instrumentu taldeek zenbait abesti eskainiko dituzte. Aurrez aipatutako tresnez gain, txarangan beste batzuk ere izango dira eta tronboi taldea eta trikitilariak ere arituko dira.

Udaberri festa zapatuan Kalegoen plazan

Udaberri festa antolatu du Atxutxiamaiak apirilaren 9rako. Besteak beste gazta nola egiten den ikasiko dute. Horrez gain sukalde txokoan esnekiekin eta frutekin irabiatuak prestatuko dituzte eta eskulanak zein beste hainbat kontu egiteko aukera ere izango da. 11:30ean hasiko da jaia Kalegoen plazan (euria eginez gero Maialan) eta HH2tik LH2ra asteko umeentzako izango da jaia.

Debabarreneko Orkestra Sinfonikoaren aurkezpena

Datorren apirilaren 29an eskainiko du Debabarreneko Orkestra Sinfonikoak jende aurreko lehen kontzertua, partaideen artean 16 elgoibartar daude. Taldea eza gutu eta kantuek entzun nahi dituztenek Eibarko Coliseoan izango dute aukera. Emanaldia 20:30ean izango da. Sarre-rak, ordea, jadanik jarri dituzte salgai 10 eurotan Kutxabanken edo Coliseon.

Maite Maiorarik gabe baina izen handiko lasterkariekin jokatu da Kilimon Trail



Fotoiosu

Mendaroko Kilimon Trail mendi lasterketan izango dira domekan (apirilak 10) izen handiko hainbat lasterkari, baina baja garrantzitsu bat ere izango da, Maite Maiorarena. Orain arte jokatu diren bost edizioak irabazi dituen saltakari mendararra min hartuta dago. Hala ere, itzal handiko antxintxikalakariak etorriko dira aurten ere Mendarora. Emakumeetan Montse Vazquez galiziarra eta Virginia Perez gasteiztarra dira Maioraren lekua hartzeko faborito nagusiak. Gizonetan, Alfredo Gil, David Garcia Castan, Zaid Ait Malek, Pere Rullan, Walter Becerra, Iker Oliveri eta Ismail Razga dira kartelburuak. Lerro hauek idazterako unean 240 lagun zeuden izena emanda. 10:00etan abiatuko dira lasterkariak Herriko Enparantzatik eta 23 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Mendaroko Txirindulari Elkarteak antolatu du Kilimon Trail mendiko lasterketa, Lizarpe Mendi Klubaren babesarekin.

Elgoibarko Enduro moto lasterketa jokatu dute domekan



Urnobitza Kirol Klubak antolatuta, Elgoibarko Enduro moto lasterketaren 14. edizioa jokatu da domekan. Gipuzkoan egiten den modalitate honetako proba bakarra da Elgoibarkoa, eta aurten gainera Euskadi eta Nafarroako txapelketetarako puntuagarria izango da. Euskal Herriko eta Espainiako 120 motozale baino gehiago espero dituzte antolatzaileek, eta horien artean izango dira Urnobitza taldeko hogeitau pilotu baino gehiago. Mintxetako aparkalekutik abiatuko dira pilotuak, bertan egongo baita *padock*-a, eta 30 kilometro inguruko ibilbidea egin beharko dute, 09:30etik 14:30era bitartean.

Ia 40 bikote lehiatuko dira pala txapelketetan

Palan jokatzeko deialdia arrakastatsua izan da eta 39 bikotek eman dute izena: 14 bikotek emakumezkoen bosgarren txapelketan parte hartzeko, eta, 25 bikotek gizonetzkoen estreinako txapelketan parte hartzeko. Apirilaren 18an hasiko da txapelketa eta Kalegoen plazako frontoian jokatuko dituzte partidak. Bi taldetan banatuta arituko dira emakumeak eta lau multzotan gizonak. Finalak ekainaren 17an jokatuko dituzte, aurrez iragarritakoa baino astebete lehenago, alegia, Nahaste Borraste probarekin bat ez egitearren.

Iñigo Larizek bigarren egin du Aventoneko kilometro bertikalean

Cabraleseko Hiru Bertikalak mendi lasterketa jokatu zuten Asturiasen, aurreko asteburuan. Saltakariak hiru proba osatu behar zituzten: Calluengako Kilometro bertikala (2,4 km., 984 m. desnibel positiboa), Subisomas Kilometro Bertikala (3 km., 1.042 m. desnibel positiboa) eta, Aventoneko Kilometro Bertikala (1,8 km, 1004 m desnibel positiboa). Iñigo Larizek azken horretan baino ez zuen parte hartu eta bigarren postuan amaitu zuen, Ferran Teixido irabazlearengandik 13 segundora. Inoiz parte hartu duen duen kilometro bertikal gorrena izan dela esan du Larizek.



Egoitz Morak irabazi du beteranoen Espainiako judo txapelketa



Beteranoentzako Espainiako Judo Txapelketa jokatu zuten Guadalajaran, apirilaren 2an, eta Egoitz Morak urrezko domina eskuratu zuen, 30 eta 34 urte artekoen mailan. Judoka elgoibartarrak lau aurkari gainditu zituen 100 kiloz azpiko kategorian, hurrenez hurren, Daniel Gomez madrildarra, Mario Brotons valentziarra, Alejandro Garcia galiziarra eta Tomas Gozalvez valentziarra. Morak eskuratutako urreaz gainera, Euskal Selektzioak urrezko sei domina eta zilarrezko bost lortu zituen Guadalajaran. Udan Kroazian jokatuko den Europako txapelketa begiz jota dauka Morak, baina bidaia bere poltsikotik ordaindu behar duenez, oraindik ez du erabaki joan ala ez.

Euskadiko Txapelketako finala jokatuko du Decak

Sanloko Deca kadete mutilen taldeak Euskadiko Txapelketako finala jokatuko du asteburuan Zarautzen. Elgoibartarrek Ereintza, Urduliz eta Zarautz taldeen aurka jokatuko dute, barixakutik domekara bitartean.

Bestalde, senior emakumezkoen lau taldeak mailari eutsi dio matematikoki eta Zilarrezko Ohorezko Mailan jarraituko du datorren denboraldian.



Jubenil mailako txirrindulari proba, domekan

Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta, 36. Elgoibarko Hiria Saria jokatuko da domekan, apirilaren 10ean. Txirrindulariak Kalegoen plazatik abiatuko dira 16:00etan, eta 86 kilometroko ibilbidea

osatu beharko dute. Parte hartzaileak Santa Klara kalean egongo den helmugara iristen direnean amaituko da lasterketa. Jubenil mailako txirrindularientzako proba izango da.

Emaitzak

FUTBOLA

Elgoibar 3 – Ordizia 2 (Ohorezko inf.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile – Cadrete Zaragoza (*Cadrete ez zen aurkeztu, 3 puntuak Conceptorentzat)

ESKUBALOIA

Bankoa Elg. 24 – Deca Elg. 40 (Kad. mut.)

Tecnifuelle 33 – Aiala Zarautz 20 (Jub. nesk.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 9

12:00 Elgoibar – Orioko (Oho. inf)

16:30 Haundi – Orioko (Oho. erreg.)

18:30 Elgoibar – Zumaiako (Oho. Jub.)

Domeka, 10

10:00 Elgoibar – Bergara (Alebin)

11:30 Elgoibar – Urki (Inf. txiki)

16:30 Elgoibar – Idiazabal (1. erreg.)

ESKUBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 9

10:00 Murgil Elg. – Amenabar (Inf. mut.)

11:15 Astigarraga – Ereintza (Kad. nesk.)

12:45 Beristain – Zarautz (Jub. mut.)

18:30 Alcorta Forging Group – Huarte (Sen. giz.)

Domeka, 10

11:00 Txarriduna – Urola (Inf. mut.)

SASKIBALOIA (Olaizaga kiroldegian)

Zapatua, 9

16:00 Viento Sur – Oiartzungo Saskilagunak

Mohamed Gurmat Euskadiko selektioarekin

C.D. Elgoibarko alebin mailako jokalaria Mohamed Gurmat elgoibartarra deitu du 12 urtez azpiko Euskadiko futbol selektzioak. Cantabriako selektzioaren aurka jokatuko zuen Euskadikoak, joan den eguaztenean, Santoñan.



LANA.....
Eskaerak

Sukaldari laguntzaile lanetarako prest. Elikagaien manipulatzaila karneta daukat eta pintxoan ikastaroa egin dut. 616 328 060

Adineko pertsona bat zaintzen lan egiteko prest. Gauetz eta asteburuetan. 648 039 187

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 631 133 431 / 632 767 696

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. 638 338 816

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest, orduka. Esperientzia daukat. 631 506 763

Geriatría laguntzaileak adinekoak zaintzeko edo paseatzera eramateko prest. 649 631 162

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo etxeak garbitzeko prest. 697 602 523

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo etxeak garbitzeko prest. 612 211 920

Umeak edo adinekoak zaintzeko edo etxeak garbitzeko prest. Arduratsua naiz. 631862413

Umeak edo adinekoak zaintzeko edo etxeak garbitzeko prest. Arduratsua naiz. 631748977

Umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko prest. 631 967 238

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko (etxeak eta elkarte gastronomikoak) prest. 617 571 210

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest. Sukaldean ere aritzen naiz. Prestutasun osoa. 602 193 095

57 urteko elgoibartarra umeak edo adinekoak zaintzeko eta etxeak lanak egiteko prest. 649 782 967

Emakume arduratsua umeak edo adinekoak zaintzeko eta etxeak garbitzeko prest. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 632 871 550

Umeak eskolara eramateko eta etxera ekartzeko prest. 627 008 888

Elektrizitatean, iturgin eta pintura lanetan aritzeko prest. 10 urteko esperientzia. 632 873 111

Gauetz adinekoak zaintzen lan egiteko prest. 632 573 554

Asteburu gauetan adinekoak zaintzen lan egiteko prest. 631 974 374

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 631 212 497

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 631 153 274

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. 631 534 125

Astean zehar lan egiteko prest: etxeak garbitzen, nagusiak paseatzeko, haien jarraipena egiten... Diplomatu. Etxeko asistentzia auxiliarra. Esperientzia. Euskalduna. Informeak. Elgoibartarra. 675 711 658

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko (etxeak, tabernak, portalak) prest nago. 631 790 555

Lan bila. Orduka, 11:00-17:00etara bitartean. Nagusiak, garbiketa lanak... 632 564 679

Pertsona nagusiak zaintzeko prest, interna moduan ere. 620 619 287

Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Garbitasun lanak ere egingo nituzke. 680 808 125

Eskaintzak

Trokelgintzan esperientzia duen 40 urte inguruko pertsona baten bila gabiltza. 635 747 040

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua

Etxebizitza ematen dut alokairuan Elgoibarko Errosario kalean. Hiru gela, sukalde-jangela, sala eta komuna ditu. Gelaka ere alokatu dezaket. 688 650 060 (Laura).

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Gutxienez bi logelakoa. 631 343 232

LOKALAK.....
Alokairua

Xagua taberna alokatzen da, San Franzisko kalean. 605 741 485

GARAJEAK.....
Salgai

Garaje itxia salgai edo alokagai. 103 metro koadro, 4,10 metroko altuera. Biltegitako egokia. Autokarabanak sartzen dira. Olasopen.

Garajea salgai Arregitorre 12an. Itxia. 38 metro koadro. 663 928 169

BESTELAKOAK.....

1941ean jaiotako kintada apirilaren 23an. 12:30ean Maalako kaperan hildako lagunak gogoratzeko meza. Bazkaria Txarridunan. 60 € Kutxabaneko ES59 2095 5036 5091 1593 5167 zenbakian, apirilak 20 baino lehen.

1991an jaiotako bazkaria ekainaren 4an Belaustegin. Joan nahi dutenek 65€ sartu Kutxako kontu honetan apirilaren 29a baino lehen izen-abizenekin: ES31 2095 5036 50 9115859510. Autobusa egongo da. Animatu!

1980an jaiotako kintada apirilaren 16an. 12:00etan Tantikan luncha eta Sigman bazkaria. Sartu 42€. 3035 007 280070067518 zenbakian. Izena eman apirilaren 8a baino lehen.

Betaurrekoak galdu nituen San Roken, Otzak inguruan, martxoaren 11 gauen. Graduatutakoak eta progresiboak dira. Saria emateko prest nago. 680 183 907



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
943 743 140 - rosapf@telefonica.net

**Komunitatearen Estatutuak nola egiten diren jakin nahi nuke.**

Legeak ez du modurik zehazten Estatutuak egiteko. Beraz, dokumentu publikoan zein pribatuan jaso ahal izango dira, eta batean zein bestean derrigorrezkoak izango dira egin dituzten jabeentzat. Hala ere, ez da nahitaez jabetza-erregistroan inskribatu beharrik balioa edukitzeke.

Arazoa legoke Estatutuek hirugarren batzuei eragitea nahi izanez gero; batik bat, gerora etxebizitza edo lokal bat hartzen dutenei. Komunitatearen Estatutuak jabetza-erregistroan ez badaude, Estatutuak egin eta onartu dituztenentzat baino ez dira derrigorrezkoak izango, ez jabetzaren bat gero eskuratu dutenentzat.

Estatutuak onartu dituztenek geroko erosleak derrigortzeko, salerosketako eskritura publikoan, zehazki agertu beharko dute erosleak Estatutu horien berri badaukala.

Beraz, Komunitatea zain egon beharko litzateke, behin Estatutuak onartu ondoren, etxebizitza saltzaileek salerosketa eskriturretan adierazi beharko dute erosleek Estatutuen berri badaukatela eta edukiarekin bat egiten dutela.

AHOLKUA: Komunitateko presidenteari ahalmena eman behar zaio notariotzara joateko eta Estatutuak eskritura publiko gisa aurkezteko. Horretarako eraman beharko du legeak ezarritako gehiengoaren onspena erakusten duen ziurtagiria.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





Hurrengo zenbakirako, argazkiak martxoaren 30ean, eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Leire**, 6 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familia-koen partez.



Zorionak, **Alaine**, ostegun-ean 6 urte bete dituzulako. Muxu potolo bat sorgintxo!



Zorionak, **Xabier** Arriolari 12. urtebetetzean, etxeko guztien partez.



Zorionak, **Markel**, igandean 8 urte beteko dituzulako. Etxekoen eta bereziki Enekoren partez.



Zorionak, **Daniel**! 4 urte handi! Muxu handi bat familia-ren eta bereziki Estanisen partez.



Zorionak, **Malen**, 2. urtebetetzean. Anaia Beñat, etxekoak eta bereziki lehengusina Maddi eta Garazi.



Zorionak, **Einer**, 9 urte bete dituzulako. Mila muxu etxeko guztion eta bereziki Junesen partez!



8 urte handi gure neskatilak! Zorionak, **Nora**! Patxo handi haundi bat etxekoen partez.



Zorionak, **Eñaut**. Apirilaren 6an zure urtebetzea izan zen. Bi urte dagoeneko! Muxu handi bat Galde-ren eta familia-guztiaren partez.



Zorionak, **Naroa**! Astelehenean, apirilak 11, 9 urte! Ondo-ondo pasa eta muxu hauuuuundi bat etxekoen partez.



Zorionak zuen urtebetetzean. Zorionak beste urte bat betetzean. Zorionak ta muxu bat biontzako. Gu danon partez.



Zorionak, **Judith**! Astelehenean 15 urte. Beste pila bat bete ditzazula. Patxo handi bat. Aita eta ama.

AZALEA Edergintza
M^a Carmen Bereziartua
 Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR
 Tel.: 943 740 310
Gorputz eta aurpegi estetika

Abian dagoen negozioa alokatzen da, erretiroa dela eta.

Erretratu bakarreko agurra:
 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
 Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

A. Garate
Era guztietako igeltzeritza lanak egiten aditua
 angelmgarate@gmail.com
 Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

610 226 651

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
 optika audio
 www.uzuroptika.com

AUDIOLOGIA ZERBITZUAK
HERRITIK IRTEN GABE
 AKUFENOEN TRATAMENDUA

HARTU TXANDA DOAN
 San Frantzisko, 21 - Elgoibar
 Tel.: 943 740 359

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
 GIZA ELIKADURAN ETA
 DIETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22 - Eibar
 Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

8 BARIXAKUA

18:30-20:30 Odolematea. Osasun Zentroko azpiko aldean.

19:00 Kantu-kalejira. Antolatzailea: Arno Guraso Elkarte. Mendaroko Azpilgoetan.

19:00 Hitzaldia: *Amnistiaren bidean, preso eta iheslariak etxera*. Iñigo Alkiturri eta Antton Lopez. Kultur Etxean.

23:00 Kontzertua: Munlet. Sinuose. Kultur Etxeko Sotoan.

9 ZAPATUA

11:30-13:30 Udaberri festa. HH2tik LH2ra arteko umeentzat. Antolatzailea: Atxutxiamai. Kalegoen plazan.

16:30 Elgoibarko XV. Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa. A maila. Antolatzailea: I. Bereziartua Musika eta Dantza Eskola. Herriko Antzokian.

10 DOMEKA

10:00 VI Kilimon Trail. Antolatzailea: Mendaroko Txirrindulari Elkarte. Mendaroko Herriko Plazan.

10:00-14:00 Enduro moto lasterketa, Euskadiko txapelketa-rako puntuagarria. Antolatzailea: Urnabitza Motokluba. Irteera eta helmuga Mintxetan.

11:00 Elgoibarko XV. Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa. B maila. Antolatzailea: I. Bereziartua Musika eta Dantza Eskola. Herriko Antzokian.

11 ASTELEHENA

19:00 Kontzertua: I. Bereziartua Musika Eskolako talde instrumentalak. Musika Eskolako auditorioan.

13 EGUAZTENA

16:30 Suhiltzaileen martxa. Elgoibartik pasatuko da.

18:30 Realeko jokalarien sinatze-ekitaldia. Errosario kaleko Kutxabank bulegoan.

19:00 Hitzaldia: *Gaur egungo euskal gizarte-zerbitzu sistemari begirada bat*. Gaztelaniaz. Hizlaria: Jaime Garcia Moreno. EDE fundazioa. Gizarteratze mahaia. Kultur Etxean.

15 BARIXAKUA

19:00 Kontzertua: I. Bereziartua Musika Eskolako taldeak. Le-kuederren, Kalebarren plazan eta Kalegoen plazan.

21:30 Bideo foruma: *Agosto*. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.



Apolinar Aldalur Aizpurua

2016ko apirilaren 3an hil zen, 86 urte zituela.

***Zure bitzta duzu marraztu, kolore denez margotu
arrastoa zuk gudan trazatu, ezingo zaitugu ahaztu***

Etxekoak



Jesusa David Ibargutxi

2016ko martxoaren 31n hil zen.

**Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.**



II. URTEURRENA

Julia Gorrotxategi Osoro

2014eko apirilaren 3an hil zen, 90 urte zituela. Haren oroimenez

II. urteurrenako meza izango da, zapatuan, apirilak 9,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren elizan.

Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.



Zinea (Herriko antzokian)



'Brooklyn'

8 Barixakua, 21:30
 9 Zapatua, 19:00 eta 22:15
 (Jatorrizkoa azpigituluekin)
 10 Domeka, 19:00
 11 Astelehena, 21:30



'Kung fu panda'

10 Domeka, 16:30

Botika ordutegiak

GUARDIAK

09:00 - 22:00

8 Barixakua IBAÑEZ
 9 Zapatua GARITAONANDIA
 10 Domeka GARITAONANDIA
 11 Astelehena ETXEBERRIA
 12 Martitzena FERNANDEZ
 13 Eguaztena YUDEGO
 14 Eguena ORUESAGASTI
 15 Barixakua BARRENETXEA

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara
 ETXEBERRIA (Elgoibar)
 Santa Ana, 1 /Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)
 Fermin Calbeton, 19 /Tel.: 943 201 110

* Fernandez: Herriko Enparantza 4,
 Garagartza (Mendaro) / Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) /
 Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze)
 Tel.: 943 751 384

Martxoan hildakoak

- **Jose Maria Altuna Leiaristi**

84 urte, martxoak 7

- **Fernando Alkorta**

Aulestiarte

92 urte, martxoak 10

- **Mertxe Ondarra Etxabe**

79 urte, martxoak 10

- **Vicente Fernandez Fanjul**

60 urte, martxoak 21

- **Jose Alvarez Nova**

96 urte, martxoak 23

- **Aurora Gil Vicente**

84 urte, martxoak 23

- **Obdulia Fernandez
Rodriguez**

87 urte, martxoak 28

- **Eduardo Hernandez Delso**

70 urte, martxoak 28



Josefa Belaustegui Urquidi

2016ko apirilaren 7an hil zen, 87 urte zituela.
 Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
 bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



ETXEBERRIA tanatorioa

Hileta zerbitzua osoa eta 24 ordukoa

KUTXAK, TRASLADOAK ETA KOROAK.
NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI ZUZENDURIKO ZERBITZUAK.
ERIETXE ZENTRUETAN ZERBITZUAK

Santa Klara, 14 - 20870 ELGOIBAR

Telefonoak:

943 741 327 (24 orduz)

Sakelekoak: 635 756 295 / 629 635 203

www.funerariaetxeberria.com



Eire Vila

Mikel Olaizola



Ezagutu ez genuen laurogeiko hamarkadara pase bat izan ziren gure belaunaldiarentzat Elgoibarko komun publikoak; kale ertz bakoitza zikinez, zarataz, borroka gainezka izan zuen herri baten azken estapak.

Plaza Txikiko egur urdina eta harri beltza, Merkatu Plaza azpiko marmol hotza, Bolatokiko ate eta leiho metaliko berdeak. Biziraun zuten arrastoetatik ikusten genuen itzaltzen zihoan garai hura, ordurako lurperatutako iragana neurri batean, *underground*-a, etxera bidean esfinterrak gehiago ezin kontrolatu eta amari negarrez erregutzen genion geratzeko; eta nola onartu hark, halabeharrez, Maalako aldapan behera eremu ilun hartan sartzea, hautsitako pixatokiz eta hormetako pintadez inguratuta. Han behean abstinentzia-

ren, torturen, La Polla-ren oihartzunak iristen zitzaizkigun, amak belarriak eta begiak estalita ere.

Gerora garbitu zen ibaia, atera zen industria kanpoaldera, baretu zen konfrontazio politikoa eta apaldu zapatu arratsaldeak. Itxi zituzten giltzez komun gehienak ere, herri honetako ordenaren zaindariak ikusteko prest ez zeuden guztiaren testigu izan ziren leku horiek, eta garai erosoago batean hazi ginen gu, neutraltasuna eta aseptikotasuna azken jomuga zituztenen abaroan. Normalak izateko desiran.

Batzuek esango dute banabilela idealizaziotan ezjakintasunetik. Justu kontrara: debekatu, ukatu diguten aro baten esplikazio eske nator, jakin arren zauri sakonak dituztela gorderik lurpean askok, ahaztu nahian. Tabuak eta beldurrak leundu, lur horren gainean hazi garenoi zor zaigulako errelato bat; ezagutu ez ditugun minei arrastaka jarraitzerik nahi ez baduzue behintzat.

“Itxi zituzten giltzez komun gehienak ere”



Gregorio Saiz Hervias

***Gogorra da onartzea
geihago ez zaitugula ikusiko
baina bizi garen artean
ez zaitugu ahaztuko***

Etxekoak

2016ko apirilaren 5ean hil zen, 74 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Ramon Zubiaurre Izagirre

2015ko apirilaren 8an hil zen. Haren oroimenez
I. urteurreneko meza izango da, larunbata, apirilak 9, arratsaldeko
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



Jose Luis Ajubita Unzueta

2016ko apirilaren 5an hil zen, 89 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.




II. URTEURRENA

Manuel Loiola Iriondo

2014ko apirilaren 9an hil zen, 82 urte zituela. Haren oroimenez
II. urteurreneko meza izango da, domekan, apirilak 10, goizeko 12:00etan
Mendaroko Azpilgoetako Elizan . Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Ikusten duzu goizean
argia hasten denean,
menditto baten gaiñean,
etxe ttipitto aintzin xuri bat,
lau haitz haundiren erdian,
txakur txuri bat atean,
iturriño bat aldean
han bizi naiz ni pakean.***



DBH
amaituta:
**Erdi-Mailako
HEZIKETA ZIKLO
INDUSTRIALAK**

- Atzerrian praktikak egiteko aukera zabala
- Ekipamendu aurreratua

Batzilergoa
amaituta
**Goi-Mailako
HEZIKETA ZIKLO
INDUSTRIALAK**

- Etekin Handiko taldeak
- Eredu Duala (Goi eta Erdi Mailan)
- Eredu Elez nitzak

38 kreditu
ballozkotzea

Goi-Mailako
Heziketa Zikloa
amaituta:
**Ingeniaritza Dualeko
UNIBERTSITATE
GRADUA**

- Alternantzia: 1. urteko 2. solhilekoan
- 38 kreditu ballozkota daitezke: urte erdiko prestakuntzaren ballokidia

Informazio saioa: Apirilak 16, 11:00 etan

Saio gehiago: www.imh.eus

Bertaratzea baieztatu 943744132 tfnoan.

GAZTAZALE UDABERRI FESTA

**Mausitzakoan
laguntzarekin.**

-Gazta nola egiten
den ikasiko dugu.

-Sukalde txokoa:
esnekiekin eta frutekin
egindako irabiatuak.

-Eskulanak...

HH2-LH2

APIRILAK 9, zapatua, 11:30ean

Kalegoen plazan

(euria eginez gero Naalako parkean)



ELGOIBARKO IZARRA Euskaltzaleon Topagunea elkarteko BAZKIDEEN URTEKO BATZAR OROKORRA

EGUNA: apirilak 18, astelehena

ORDUA: 19:00

TOKIA: Kultur Etxeko hitzaldi-gela

AZTERGAIAK:

- Lehendakariaren AGURRA.
- 2015ean egindakoaren aurkezpen-balorazioa eta diru kontuen memoria.
- 2016ko lan-ildo nagusien eta aurrekontuaren aurkezpena.
- Galdera-erantzunak.



Egiten duguna gara; etorri Elgoibarko Izarrak
egiten duguna ezagutzera.

